

2002ko urria

9. zenbakia

aikor!

txorie *karia*



VIRGINIA
BERASATEGI,
BURDINAZKO
EMAKUMEA

ZAMUDIOKO JAIK GORA SAN MARTIN !!!

PARTE HARTU GURE JAIETAN

JAIK EUSKARAZ BIZT!!!



"la Caixa"

Zamudio
Mikel Zazate plaza, 3
48170 Zamudio
Tel. 94 452 11 06 - 94 452 11 11
Fax 94 452 34 20

BANCO
Guipuzcoano

Lehenengo Ierroan

**SAN MARTIN ALAIK OPA DEUTSEGUZ
ZAMUDIOZTAR ETA BISITARI GUZTIOI**

Aresti kalea, 2
Tel. 94 452 38 36

48170 ZAMUDIO

Mead

Mead Embalaje S.A.

San Martin, 26
48170 Zamudio - Vizcaya - Euzkadi
Telefono 94 452 38 48
Telefax 94 452 30 68
94 452 30 22

Ondo pasa San Martineko Jaietan
Zamudion



GASTRONOMIA
BASKA
Cocineros Artesanos



urte
1983 **20** 2003
años

ZERBITZU BEREZIAK

HERRI BAZKARIAK, LUNCH-AK, ESKONTZAK...

KOLEKTIBITATEEI ZERBITZUAK

IKASTETXEAK, LANTEGIAK, EGOITZAK, HOSPITALAK...

POLIGONO TORRELARRAGOITI s/n
48.170 - ZAMUDIO

Tel.: 944 523 800 Faxa: 944 523 942
gastrobaska@gastrobaska.com

BADENAK

Errepideetan azkenengo barrikuntza dogu, azkenengo iraultza, behin betirako auto gidarien abiadura-goseari stop egiteko gauza izan dana. Ez dakit zelan –edo akaso bai– baina gure bizitzan sartuten joan dira. Apurka-apurka. Ez, ordea, isilean, autoen aurre-azpialdeek hartutako kolpeen zaratak horren lekuko. Aspaldiko lagunekaz dogun konfidantza berberaz begiratuten gaitue. Gehiago esango neuke. Auto-gidarioi, urteetan kalerik kale eta tabernarik taberna ibili dan gautxoriari amodio berantiarrak eragiten deutson barealdiaren antzeko zeozer ekarri deuskuela esango neuke.

Diru-zigorrez jantzitako mehatxuek lortu ez ebena, honeek bai, honeek lortu dabe, edo behintzat lortutako bidean dagoz.

Gure inguruan ikusi arte ez nebazan ezagutzen, baina agertu eta denpora laburrean euren samurtasunez konbentzidu nabe. Hori bai hori, beharrera edo etxera doazen gidari koitauak tratetako era goxoa!! Txorierriarrok, derioztarrok batez be, benetazko suertea daukagulakoan

nago. Ni neu, hasikera-hasikeratik, maite-mindu nintzan eurekaz. Bai, halan aitortu behar dot. Esker txarreko batzuk be bada-goz, zelan ez. Konturatu be ez dira egiten auto-estresari aurre egiteko oso baliozkoak dirala.

Normalean koloretsuak agertzen jakuz, gorritz jantzita ia beti, tentaldian (ez) jausteko abisu argiaz.

Ikusiko zenduenez, errepide-sareko barrikuntza mundial honen aldekoa naz ni, guztiz aldekoa. Are gehiago, Txorierriko Autobide berrian be ipiniko neukez, lau edo bost, herri bakoitzeko sarrera-urtekeretan. Pentsetan hasia nago ez ete diran komenigarriak izango aireportuko pistan be, edo, astokeriak esaten hasita, Teknologi Paretik Aldekonarantza doan bidean, justu-justu Aldekone izeneko auzo honetan etxebizitzak dagozan tokian, Goikoetxe auzoan zehatzago esanda. Bertoko auzokoek ez dot uste pega handirik ipiniko leukienik. Jente lasaia, baketsua da, azken urteetan idiek bultzatutako gurdietatik langile, makarra eta langile-makarrak gidatutako 200 CVdun autoetara

paisaiak jasandako aldaketea ikusi daue-na, holango barrikuntzei arpegi ona ipiniz beti.

Baina, baina, zer dinot!!, burua galtzen hasi nazela pentsako dozue. Lehengo astokeri galanta horreek ez dira bape bideragarriak, hirugarrena, pentsau bez !!

Halan uste dau, ondo hausnartuta, Derioko Udalak baita azkenengo astokeri horren ganeko eskumena-edo daukan Teknologi Parkeak/Foru Aldundiak.

Kontu handiz ibili errepidean eta beste bat arte.



Testua: Fernando Larrondo (Aldekoneko oinezko eta gidari bat)



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia, Belen Gana, Juanxu Bilbao, Amagoia Guezuraga, Mariasun Abona, Maite Aranburu, Gotzon Barandiaran.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Oihana Astobieta, Basabildotza, Puri Martinez, Lourdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi).

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 4.750
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

Eritxia.....	3
-Aikor!-ri gutunak.....	4
-Laburrak eta albisteak.....	6
-Erreportajea	
Virginia Berasategui.....	10
-Gaizka Peñafiel.....	13
-Euskal ezkontza.....	14
-Zamudioko Jaiak.....	16
-Gazteak.....	20
-Inguma.....	21
-Baserri mundua.....	22
-Teknologia.....	23
-Loiuko azoka.....	24
-Txorienitarrak munduan.....	26
-Sukaldaritza.....	28
-Denbora pasa.....	29
-Agenda.....	30

gutunak

Aldizkari honetan atal berri hau, "irakurleen gutunak" hain zuzen ere, zabal-tzen dugu zuen ekarpenak, aholkuak, iradokizunak eta abar argitaratzeko eta, zelan ez, aldizkaria hobetzeko. Oso pozik gaude aldizkaria oso irakurria delako eta, horren eraginez, lehenengo gutunak jasotzen hasi garelako.

Jarraian ikusiko duzuenez gero, gutun gehienak aurreko aldizkarian agertu-tako hainbat informazioa osatzeko dira. Denak modu onean idatziak eta aldiz-karia hobetzeko nahian eginda direlakoan eskerrak eman gura dizkiegu euren egileei eta, era berean, animatu hurrengo batean ere idatz diezaguten.

LARRABETZU: HERRIAN EZKONDU EZIN

Jaun agurgarria:

Idatzi honen bidez, zuk zuzentzen duzun aldizkarian, 8. zen-bakian 8. orrialdean, "Larrabetzu: herrian ezkondu ezin" izenbu-rupean agertutako informazioa dela eta, hurrengo hau adierazi eta argitu nahi dizut:

"Aurrerantzean Batasuneko zinegotziek ez zutela beste inor ezkonduko" esaldia nire ahotan ipintzen da, eta nire ahotik halan-go esaldirik ez dela inoiz ere aterata, eta Alkatetza honek hurrengo hau adierazi gura dau:

A) " Nire erabaki pertsonala hemendik aurrera Batasuneko zinegotziei ezkontzarik ez egitea da" esaldia ez da Alkateak esan-dakoa izan, ezkongai beraiek asmatutakoa baino.

B) Udal honetan ez jako inori ezkontza zibila egiteko eskubi-dea ukatu. Bake-epaileak edo Alkateak dira ezkontza zibila egite-ko legalki baimenduta dagozanak. Alkateari dagokio, kasu berezietan, Alkate-ordeari edo zinegotziei delegatzeko eskubidea.

C) Eskubidea delegatzeko kasu berezi hauek birritan emon dira; baten, M^o Carmen Gazteluk (E.A.J.koak) ezkontza eginez eta beste baten Aintzina Lekuek (BATASUNAKoak).

Kasu berezi hauek ohitura bihurtu ez daitezkan, Alkateak ezkontza-zibilak berriz ez delegatzea erabaki zuen.

Beste alde batetik, aldizkari bereborean, Larrabetzuri dagokion beste informazio bat ere agertzen da, eta hor ere agertutakoa ez da egi osoa, urioletan auzolanetatik aparte udal honetako langile-ek ere garbitze lanei ekin zitetelako.

Tomas Ordeñana, Larrabetzuko alkatea

TXORIERRIKO KORRIDOREA

Kaixo lagunak,

Larrabetzuko "Aikor" aldizkariaren irakurle bat nauzue eta benetan harritu nau azken alean zetorren Txorierriko korredoreari buruzko artikulua. Zuek aukeratu duzuen erdiguneko gaia benetan garrantzitsua iruditzen zait, baina mesedez, ez behin eta berriz "pentsamendu bakarreko" mezu instituzional ezkutu bat jasotzeko. Edo benetan pentsatzen duzue txorierriar guztiek bat egiten dutela obra erraldoi horrekin edota korridoreak izandako oposizioa, berez, urtu eta desagertu egin dela denboraren poderioz?

Txorierriin jende asko dago korredorearekin kritikoa dena. Horregaitik jende horren iritzia ere faltan bota ditut zuen erre-portaian. Zuen testu "objektiboan", nire uste apalean, Bizkaiko Diputazioak ematen duen aldebateko informazioarekin, propa-ganda ezkutuaren ariketa bat egin da. Penagarria. Beste asuntu politiko eta kulturetan hain kritikoak garenean, aldiz, "garapen" eta hazkunde ekonomikoaren alorretan badirudi bertsio ofizialaz aparte ez dagoela ezer.

Aspaldidanik azpiegitura erraldoien aurka ematen diren argu-dioak ez dira artikuluan agertzen eta pisuzko arrazoiak daude horrelako proiektu txikitzaileen aurka egoteko. Korredore honek nire ustez, ingurumenean sortzen dituen arazo larri eta itzuliezina-az aparte, ez du "soluziobiderik" ekarriko baizik eta arazo larri baten azelerazioa. Nondik aterata duzue trafikoa gutxituko dela? Txorierriin askoz trafiko, kotxe eta kamioi gehiago egongo dira, horiek eka-rriko dituzten osasun, ekonomi eta ingurumen kalteekin. Korredoretik joango dira gehienak noski, eta alboko errepedeetan agian zeozter gutxiago izango dira, baina kopuru osoa askoz altua-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRENTA RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - TONER
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

- SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
- RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Modinos de la Peña
TEL. 94.676.91.46

URDULIZ - AURREREN
Igurtzauna, 5 1^o Planta D
TEL. 94.430.48.18

SONDIKA
ERREMENTERIL 20 LOCAL
TEL. 94.468.57.91

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.eukalnet.net



(Aurreko orrialdetik dator)

goa izango da. Eta zoritxarrez istripuak ez dira gutxituko, edo ez duzue erreparatu A-8an astero gertatzen direnekin? Asuntua serioa da oso, obra publiko erraldoi hauen inguruan hain modu "instituzional" eta "sinplean" aritzeko. Gaiak portada eta barneko lau orrialde betetzeko merezi du, ados, baina mesedez ez porlaren eliteen ikuspuntua agertzeko soilik.

Trafikoaren arazoei eusteko, kamioi eta kotxe partikularren erabilera eta bidaien kopurua murriztu behar dira. Korredorearekin, zoritxarrez, guztiz kontrakoa lortu nahi da. Lanera, erosketetan edo ikastera joateko bestelako adibide polit

bat daukagu Txorierrin: trena, oso gutxi potentziatzen dena, baina egunero jende asko mugitzen duena. Diru guztia baldin badoa trafiko pribatuarentzat, zer gelditzen da garraio publiko eta ez-motordunak bultzatzeko? Espero dut, hurrengo batean trena, bidegorriak edo bestelako mugikortasun baliabideak eta alternatibak ikutzen dituzuenean beste modu orekatuago baten arituko zaretela.

Agur eta ondo izan!!

Iñaki Barcena

TXORIERRIKO KORRIDOREA: AGINTARIEK EZ DIOTENA

Aikor aldizkariaren 8. zenbakian, Txorierriko korridoreak aleko azala eta lau orrialde okupatzen zituen.

Ez da harritzekoa. Errepide horrek Txorierrin eduki duen eta edukiko duen eragina izugarria baita. Eragin handia duela ez du inork eztabaidatzen, baina kontua da ea erabateko eragin hori onurako ala txarrerako izango dugun.

Eta gai honetan edozein gaitan legez iritzi kontrajarriak egon beharko lirakekeen arren, hemen bakarrik Foru Aldunditik datozen ahotsa entzuten da: Korridorea guztiz onuragarria izango da Txorierrin eta txorierritar guztientzat.

Foru Aldundiko agintariak proiektua goraipatzeko bi ideia nagusi saltzen ari dira. Lehenengoa, N-637 errepidetik pasatzen den trafikoak %70 egingo duela behera, gaur jasan behar dugun kutsadura eta arriskua gutxituz. Eta bigarrena, eskualdeko garapen ekonomikoa bultzatuko duela.

Baina iragarki ofizialak hain liluragarriak izan arren, nire ikuspuntua guztiz bestelakoa da.

Eta datu objektibo batetik abiatuko naiz. Momentu honetan gure eskualdeak pairatzen duen trafiko arazo larria eta bere ondorio oso kaltegarriak korridoreak berak ekarri ditu neurri handi batean. Korridorea hasi baino lehenago geneuzkan kotxe eta kamioi ilarak, kutsadura edota istripuen kopurua ezin ditugu gaurkoekin parekatu.

Korridoreko iparreko zatia bakarrik egiteak ekarri du, alde batetik, kontrol eta antolaketa gabeko hazkunde industrialak Sondikatik Zamudioraino batez ere eta, beste aldetik, trafiko kopuruaren gehikuntza ikaragarria Lezama eta Zamudioko hiriguneetan, kalte handiak eraginez udalerrir hauetan.

Orain, arazo hauen aurrean "korridorea amaitzearekin arazoa-ri konponbidea emango zaiola" esatea oso kuestionagarria da.

Pentsa ezazue errepide berriarekiko Foru Aldundiak dituen aurreikuspenak betetzen badira, gure bailaratik igaroko den trafiko kopurua gutxienez bikoiztu egingo dela. Eta horrez gain merkantzia arriskutsuen joan-etorria are gehiago igoko da.

Beraz, Lezama eta Zamudioko hiriguneetatik trafikoaren zati bat aterako dela (edozein kasutan inolaz ez %70) egia bada ere, Txorierriko bailaran orokorki kutsadura eta arriskua, batez ere garraio arriskutsutik etor daitekeena, handiagoak izango dira.



Eta garapen ekonomikoaren lelora joanda, oso serio aztertu beharko genuke holako azpiegiturek zer nolako hazkunde ekonomikoa mota eragiten duten.

Zentzu honetan korridoreak jadanik ekarri dituen triskantza ekologikoa eta lurralde okupazio erraldoia oso garesti ordaindu beharko duguna seguru nago.

Bailaran historikoki eduki dugun nekazari tradizioaren bilakera kezkarria, Zamudion gertatu den zabaltze industrial basati bezain arrotza edota Lezamako Eguskitze ingurualdean kokatu nahi duten urbanizazio industrialak, ezartzen ari den ereduaren isla adierazgarriak ditugu.

Hori al da Txorierrirako nahi dugun hazkundea eta eredua?

Eta gogoetarako azken konstatazio larria: onerako edo txarrerako izango den alboan utzita, errepide erraldoi hau, Txorierriko etorkizuna erabat baldintzatuko duena, txorierritarren borondatearen gainetik ezarria izan da.

Eta ezarketa horren aurrean zoritxarrez gure udalek, edo hobe esanda, gure alkateek, herritarren informazioa eta partehartzea defendatu beharrean, beraien nagusi politikoen agindupean kokatu dira berriro, txorierritarrek babes faltan eta ezintasun hutsean utziz. Benetan tamalgarria.

Txema Pico: Txorierriko ordezkaria Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Laia hotel museoak zerbitzu interesgarriak eskaintzen dizkio bezeroari, besteak beste, liburutegia, fitness eta spa zentroa edo logela guztietan hidromasaje zerbitzua. Beste alde batetik, gure kulturaren altxorak gorde nahian, Euskal Herriak historiaurretik orain arte izan dituen elikatze moduei buruzko erakusketa dago ikusgai museoan.

ENPRESAK SORTZEKO IDEIA BERRIAK SARITUKO DITU BEHARGINTZAK

Txorierri, Mungialde eta Uribe Kostako Behargintza zentroek enpresak sortzeko ideia edo ekimenen lehiaketa prestatu dute. Lehiaketaren helburua hau da: alde batetik, enpresa-kultura zabaltzen laguntzea, eta, bestetik, langabeak lan munduan txertatzeko bide berriak aurkitzea.

Arauetan azaltzen den legea, eskualde hauetan erroldatuta daudenek har dezakete parte lehiaketan. Gainera, enpresak eskualde hauetan sortzeko asmoa dutenei ere aukera emango zaie euren proiektuak aurkezteko.

Interesatuak Behargintzako hiru zentro horietan eskura ditzakete eskabideak. Ideiak aurkezteko azken eguna azaroaren 29a izango da. Lehenengo saria 4.800 eurokoa izango da eta bigarrena zein hirugarrena 1.800 eurokoak.



UZTA EGUNA LEZAMAN

Urriaren 6an, jendetza handia batu zen Lezamara, Uztarria
Eguna ospatzeko. Txakolin Azoka lehenengo aldiz antolatu da
eta, arduradunen eta ekoizleen arabera, oso arrakastatsua izan
da.

Txorierriko txakolin-egileen asmoa zen jendeak ardo horren kalitatea ezagutzea. Izan ere, azken uztia bikaina izan da. Txorierrin Bizkaiko Jatorri Izeneko txakolina produzitzen dutenak 22 dira. Herriko plazara joandako jendeak txakolina ez ezik baserriko produktuak ere dastatu ahal izan zituen.



Restaurante

SAN ISIDRO

COMPLEJO SAN ISIDRO AL 10 DE LA CALLE PASADIZO DE LOS
ESKONTZAK, BATAKAK, JAUNARTZAK

Teléfono 94 451 0708
 Fax 94 451 0108

Margalek Delekua, s/ 25
 48100 ORIO

CINTEO MASATI

LASAI



Cinco de Mayo 4th grade

10000 LAS VEGAS (Las Vegas)

Tel: 951-431-1075

Móvil: 951-74-24-00

Fax: 951-431-1076

Fuente: www.cinco.org

 **inmobiliaria
bilbao**

Avda. Kalea, 2. 4º. Bilbao
Tfno./Fax 94 454 10 94
Móvil: 620 223 209

48160 DEKIO
(Bilbao)

LOIUKO AIREPORTUAN ALDERDI BAT URBANIZATZEN ARI DIRA ZAMALAN ETA HORNIKETARAKO


Loiuko aireportu berriaren albo batean dagoen 370.000 metro koa-droko sail bat urbanizatzen hasi dira zamalanetarako eta eta horniketarako gune berria bertan ipintzeko. Zamalan eta catering zerbitzuak eta erregaiei deposituak terminal zahar-raren ondoan kokatuta daude eta horregatik beharrezkotzat jo dituzte obra horiek.

Izan ere, hornitzaileek egunero kilometro asko egin behar izaten

dituzte terminal batetik bestera erre-pidez joateko.

Lanen aurrekontua 5,48 milioi eurokoa da eta maila bitan egiten ari dira: bata, pista ondoan, eta bestea, goiko alde-an, hau da, aireportuko sarreraren ondoan.

Horrela, hegazkinekin kontaktu zuzena behar duten zerbitzuak, esaterako, hegazkinak erregaiz hornitzeko, beheko aldean jarriko dira, eta zama biltegiak, berriz, goikoan.



Loiuko aireportuaren planoak

Aireportuko bidaiarien kopurua bikoiz-tu nahi dute

Zazpi urteren buruan Loiuko aireportuko ter-minalak bost milioi bidaiari izatea du helburu-tzat Bilbao Air-ek, aireportuaren sustapenaz arduratzen den sozietateak. Horrek esan nahi du gaur egungo bidaiari kopurua bikoiztu egingo dela.

Bilbao Air sozietateak destino gehiago eskaini nahi ditu, Kantauri Itsasoko eskualdea Europarekin hobeto lotzeko. Sozietateko ardu-radunen asmoa da, asteburuko turismoaz gai-nera, egonaldi luzeagoko turismoa ere erakartzea. Beste alde batetik, lan arrazoi-en-gatik egiten diren bidaien kasuan, erraztasun handiagoak eman nahi dira Europako airepor-tu nagusiekin lotzeko.

Loiun eguneko zentroa zabaldutara garatzen diren gazteentzat

Irailaren 24an, "Zabalotxe Goikoa" eguneko zentroa inauguratu zen, Loiun, garun-perlesia duten gazteentzat. Hura San José Artesano ikastetxearen eraikinean kokatu da eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1.202.024 euro (ia 200 milioi pezeta) jarri ditu berritze-lanak egi-teko. Garun-perlesiaz kaltetutako familien elkarte-a (Aspace) arduratuko da zentroaren gestioaz.

Instalazio berri horietan 3 urtetik 18ra bitarte-ko 40 gazte hartuko dira. Bertan hainbat zer-bitzu eskainiko zaie: hezkuntza, gizarte eta osasun programak eta aisialdia. Egiturari dagokionez, zentroak solairu bi dauzka eta haietan gela batzuk egokitu dira ariketak edo jarduerak egiteko. Horrezaz gainera, igerile-kua eta terraza ere eraiki dira.

Amaitzeko aipatu beharra dago talde profesiona-l hogoita lau beharginek osatzen dutela.

TORREKO TXAKOLINA

1883-TIK TXAKOLINGILEAK
TORRE BASERRIA
Aretalde auzoa
48196 LEZAMA
Bizkaia

José Antonio Dañabertia ☎ 94 473 15 34
Pedro Maria Dañabertia ☎ 94 676 05 20
Bodega ☎ 94 455 62 39

TXAKOLINA
LUISARRE

11% Vol. 75 cl.

Garmintza, 87
Tf: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Josep E. Lizarra

Victor Gualdo Gualdoak bidia, postaria eta bolantaria

LEZAMA-110/KUA
N.R.E. 48140538/181

CANTEROS TRIKHARRI

HARRI NATURALA
KOKATZEA ETA LANTZEA

BASERRIAK BERRIZTATZEA

Unbetxiki, 3
Tfno. mobilak: 670 51 80 98
48180 LOIU (Bizkaia)

KUKUBILTXOK LIBURUA ETA DISKOA KALERATUKO DITU

Kukubiltxo antzerki taldea ospakizunetan dabil ondino be. 25 urte bete ostean, Ekidazu antzezlanaren herrikeria herri eskaintzen dabiz. Baina antzerkia bakarrik ez, aurtengo gabonetarako liburua eta diskoa be kaleratuko ditu Larrabetzuko taldeak. Ekidazuko antzezlanean oinarrituta, ipuin polit bat atondu dau Kirmen Uribe idazleak. Ipuina argazkiek osatuta egongo da –Kukubiltxoko panpinen argazkiak danak eta disko bat be eukiko dau. Diskoan Oskorrik Ekidazu antzerki lanerako egindako kantak agertuko dira.

Testua: Patxi Gaztelumendi



MATXINATUEN KORRIKALDIAK TXORIERRI GURATZATU DU

Elorrioren hasi eta Baionan bukatu zen Matxinatuen Korrikaldia. Intsumisioaren alde hainbat gazte taldek antolatutako ekimen mugikorra izan da, herriz herri Euskal Herri osoa zeharkatu duen Intsumisioaren aldeko korrikaldi bat.

Eta Txorierriatik be igaro zan, urriaren 10ean, egunez. Sondikatik sartu eta Larrabetzun izan zuen amaiera karrerak. Herriz herri, eta ez oso denbora onagaz, gazte andana bat batu zen intsumisioaren aldeko korrikaldira. Gazte taldeak, ikasleak, dantzariak, kirolariak... denetatik parte hartu zuten sardia eskuan hartu eta oihuka korrikatzeko.

Bukaera Larrabetzun izan zuen, eta bertan bildu zen korrikalaririk gehien, 70 inguru edo guztira, 16 lasterketa zatitan, herriko kirolari, musikari, poeta, bertsolari, kultur talde, gazte talde eta

enparauekin. "Matxinatuen balsa" poemaren irakurketak eta bertso batek eman zioten bukaera egunari, eta txokolate bero baten zaporeak amatatu zuen Intsumisioaren aldarria.

Testua eta argazkia: Patxi Gaztelumendi



Hautzaindegia lortzeko gurasoak lanean

0-2 urte arteko umeak barra-barra sortzen ari dira Larrabetzun. Baina lan egiten duten gurasok arazoak dituzte euren umeak jagoteko. Horregatik, Larrabetzun be hautzaindegia alderatu lanean hasi dira umeak eduki dituztenak, eta ondino be umeak eukiko dituzten bikote batzuk be. Hainbat batzar egin dituzte Kultur Etxean, eta orain arte jaso dituzten erantzunen artean, ez dago Udalaren aldeko erantzunik. Guraso talde honek lanean jarraitzen du hautzaindegiko proiektuagaz, eta orain bilera ireki eta zabalak egiten dituzte. Aurrerantzean aukiko dugu proiektuaren berri zehatzagoa. Bitartean umeak etxean edo hautzaindegi pribatueta doaz goizero.

Urbasara irteera gaztetxetik

Hori Bai gazte elkarteak 25 gazte Urbasara abiatu ziren urriko bigarren asteburuan. Bariku arrastian plazan bildu eta asteburu osoa mendian eman zuten, Acedoko kanpinan. 25 gazteak kezkatuta dagoz Hori Bai gazte elkartearen oraina eta etorkizunagaz, eta besteak beste aurrerantzean zer egin be berbaz aritu ziren topaketa horretan. Mendian ibili, pelotan jolastu eta ondo pasatzea zen helburua, eta ondo pozik bueltatu ziren Urbasatik Larrabetzura. Lanean jarraitzeko prest.

Guardia Zibila Larrabetzu apurtzeko prest

Larrabetzuko kale nagusia, Andra Mari, obretan dago aspaldiko hileetan. Obrak astiro-astiro doaz, egia esan, eta noiz amaituko diren ezin igarri. Halan da be, San Migel egunean, irailak 29, Guardia Zibilen patruila bat, kale erditik pasatu zan behin eta berriro. Gogoratu behar da kalea itxita dagoela, eta ez dagoela autorik pasatzeko moduan. Guardia Zibilak, zelan ez, jaramonik egin ez eta tuberia batzuk apurtu zituen. Plaza ingurua urez gainezka geratu zen, eta ura ebagi behar leku batzutan. Orain arte behintzat ez da ezelango salaketarik egon Guardia Zibilaren kontra.

Testuak: Patxi Gaztelumendi

HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko tikela

Urritxak, 7 bilera - 94 455 89 41 LARRABETZU

GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA

Luis Fernando Aguirre

Mateo Harizteagui, 1 - Ibaeta Nervion, 3 - 489 40pln. 15-2
Tfnos.: 94 453 33 28 Tfnos.: 94 423 42 42
Faxa: 94 453 50 Faxa: 94 423 61 70
48150 MONTORCA - Huelva 48001 III HALL

LIBRERIA SONDIA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zetale, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIA (Bizkaia)

ZAMUDIOKO PSIKIATRIKOA BERRITZEKO LEHENENGO FASEA INAUGURATU DA

Gabriel Inclán Osasun sailburuak Zamudioko ospitale psikiatrikoaren berritze lanen lehenengo fasea inauguratu zuen urriaren 16an. Ospitale psikiatrikoa ireki zenetik 30 urte pasa dira eta, instalazioak nahiko egokiak izan arren, azpiegiturak konpontzeko ordua heldu dela erabaki dute arduradunek. Hori dela eta, berritze lanak 5 fasetan banatu dira, ospitaleak zabalik jarrai dezan.

Inauguratu berria den zatia egokitze lanen lehenengo faseari dagokio eta lehenengo eta bigarren solairuetan burutu dira. Bertan 20 logela daude 40 gaixo hartzeko. Logela horietan komunak jarri dira eta gaixoek euren burua ez zauritzeko segurtasun sistemak ezarri dituzte.

Horretaz gainera, egiten diharduten beharron ondorioz, ospitaleak 780 gaixo psikiko larri hartu ahal izango ditu urtean. Gaur egun, urtean 700 lagun baino ez dira pasatzen ospitaletik. Berritze lanen aurrekontua 3.820.220 eurokoa da.

DERIOKO HILERRIAK BISITARI ASKO IZANGO DITU DOMU SANTU EGUNEAN

Aurreko urteetan bezala, uste da Derioko hilerria jendetza handia hurbilduko da Domu Santu egunez, izan ere, Bizkaiko herri askoko jendeari lur ematen zaio bertan. Asteburu osoan, beraz, bisitari asko eta auto ilara handiak ikusi ahal izango dira Txorierriko etorbidean.

Haiez gainera, lore saltoki gehiago egongo dira. Guztiok dakigunez, hilei loreak erotea antzinatik datorren ohitura da eta, antza denez, egun hori aproposena da ohitura hori berritzeko.



Amoniakoaren ihesa, Ugaldeguren industriakdean

Urriaren 15ean, Zamudioko Ugaldeguren industrialdean kokatutako Bready's Factory enpresan amoniakoaren ihesa izan zen gaueko hamarrak aldean. Antza denez, langile batzuek hodi bat zulatu zuten, mantentze-lanetan aritzen zirela. Horren ondorioz, amoniakoak ihes egin zuen hozkailu bateko hozte-sistematik.

Alarma jo ostean, Eusko Jaurilaritzako teknika-riak, Ertzaintzako patruilak eta suhiltzaileak abiatu ziren toki horretara. Langileak pabiloitik atera eta industrialdeko nahiz Aranoltza auzoko sarrerak itxi zituzten.

Hasiera batean, haizeak etxebizitzetarantz zabaldu zuen amoniakoa, baina auzokideak ez ziren kaltetuta gertatu. Hamaiketan larrialdi-lanak amaituta zeuden.

Larrondon zerbitzugune berria jarriko da

Bizkaiko Foru Aldundiaren Bideak enpresak zerbitzugune bat eraikiko du Txorierriko autobiko Larrondoko irteeran. Instalazioetan kamioi eta autoentzako aparkalekua ere egongo da. Horretaz gainera, konponketa tailerra, atsedena-lekua, jatetxea, denda eta gasolindegia jarriko dira. Aipatutako enpresak 50 urtez esplotatuko du zerbitzugunea.

Arazo psikiatrikoak dituzten 20 ikaskek tratamendua jaso zuten iaz Olako zentroa

Pasa den urtean, 8 urtetik 13ra bitarteko 20 gaztek euren eskolak utzi zituzten Sondikako Olako zentroan tratamendua jasotzeko. Eguneko zentro horrek programa bat jarri zuen martxan, orain urte bi, ikasteko arazoak zein portaera arazo larriak zituzten ikasleentzat. Halako kasuetan, Hezkuntza eta Osasun Sailak, umeen portaera ikusi ondoren, guraso-enganara jotzen du eta ados jartzen saiatzen da umeak eskolatik ateratzeko eta programa horretan sartzeko. Krisia gainditu ondoren, eskolara itzultzen dira berriro.

Egonaldiaren iraupena sei hilabetetik urte bira bitartekoa izaten da. Hala ere, denbora horretan umeek ez dute galtzen eskolarekiko harremana, eta euren ikastetxeetan matrikulatuta jarraitzen dute. Zentroan tratamendu psikiatrikoa ez ezik, eskolak ere jasotzen dituzte. Gazte batzuk goizez joaten dira Sondikako zentrori, eta arrastiz, berri, euren eskolara; beste batzuk, oster, egunak txandakatzen dituzte, euren beharrianen arabera.

Urte bi hauetan, tratamendua jaso duten gazteen %45ek lortu dute euren ikastetxean berriro integratzea.

ATARRABI

Erretamentari, 11 - 48150 Sondika
Telefonoa: 944 521 928

GARRAIOLARIA

Miguel Angel Lokuc
Andra M^{te}, 151
LARRABETZU
Tfnoa.: 94 455 80 20

ANGELKULARITZA

FIRKALA
JARDORAI
KONTABILITATERA

ANGUNKOE

Araozalde 68 - Tel.: 94 455 65 38
41100 IZPANA (BIZKAIA)

VIRGINIA BERASATEGI BURDINAZKO EMAKUMEA:

**“TRIATLOIA NIRE
HONDAMENDIA ETA
NIRE SALBAZIOA
IZAN DA”**

Testua: Itxaso Marina

Sondikako triatloilari hau gazte-gazterik hasi zen kirola egiten. Bere lehenengo triatloia 15 urterekin jokatu zuen eta orduantxe konturatu zen kirol hori bere bizia izango zela. Orain, 12 urte geroago, harro egon daiteke munduko triatloilaririk onenetariko bat izateaz, bitarte horretan marka handiak lortu baititu: Espainiako markarik onena, Ironman batean (Frankfurt, 2002); hirugarren postua, distantzia olinpikoan (2002); Espainiako triatloi txapelduna (Aguilas, 2001); bigarren postua, Kanaria Handiko Powerman-en (2000)... Bere azkeneko marka Nizan lortu zuen irailean, bertan eginiko munduko triatloian brontzezko domina irabazita.

Noiz sartu zinen kirol munduan?

Txikitan. Etxean giro horretan bizi izan gara beti, gurasoek kirola egiten zuten eta. Lau urte nituela igeri egiten hasi nintzen eta, geroago, korrika egiteari ekin nion ikastetxean.

Hiru probek (igeriketa, txirrindularitza eta lasterketa) osatzen dute triatloia. Nahiko kirol gogorra da, beraz. Zelan erabaki zenuen hura praktikatzeari?

Igeriketa eta atletismoa tartekatzen nituen, baina bizikleta oparitu zidaten eta 90ean neure lehenengo triatloi laburra egin nuen. Modalitate batetik besterako aldaketetan ondo moldatzen nintzela ikusita, handik urtebetera hasi nintzen lehiaketa

tetan parte hartzen, baina ondo pasatzeko asmoz. Gauzak ondo joan ziren eta, hasi bezain laster, Espainiako selekzioan nengo. Harrezkero, serioago hartu nuen.

Zein probatan egin behar duzu esfortzurik handiena?

Igeriketan. Distantzia laburrak direnean, oso azkar egin behar duzu igeri, talde egokian sartzeko, hala egiten ez baduzu, ez baituzu aukerarik izango hurrengo probetan ahalik eta aurreren irteteko. Gainera, 200-400 m egiten dituzu kolpeka.

Eta zeinetan zabilta ondoen?

Zirkuitua gogorra bada, hau da, aldapak edo portuak baditu, txirrindularitzan.

Potentzia handirik ez dudanez, hobeto baliatzen dut horrelakoetan behar izaten den garapena. Zirkuitua laua bada, apur bat sufritzen dut.

“Kirol guztiak dira gogorak, eta kirol batean zenbat eta aurrerago heldu nahi izan, hainbat gogorrago egiten da”

Elite atleta zara. Gaur zauden lekura ailegatzea asko kostako zitzazun...

Nire ustez, kirol guztiak dira gogorak, eta kirol batean zenbat eta aurrerago heldu nahi izan, hainbat gogorrago egiten da. Nik ezaugarri batzuk dauzkat, baina konstantziak eta eguneroko borrokak eraman naute nagoen lekura. Askotan nahia-
go duzu etxean geratu edo lagunekin irten, baina ezin duzu, entrenatu egin behar duzu eta.

Zenbat ordu entrenatzen duzu egune- ro?

Normalean, lau edo bost ordu, eta batzuetan gehiago. Nik denbora gehiago eskaintzen diot igeriketari; gero, lasterketa eta txirrindularitza tartekatzen ditut. Gauza asko dira: teknika, potentzia, erresisten-
tzia, abiadura... eta ez dago astirik dena egiteko.

Elikadura ere garrantzitsua da. Dieta berezirik egiten duzu?

Ez, egiten dudana da proteinarik eta hidratorik ez nahastea. Normalean, gosa-
rian zerealak jaten ditut, bazkarian hidrato-
ak, eta gauean proteinak. Elikadura oso inportantea da, zeure gasolina da eta. Zeure burua zaindu, eta jatordu egokiak egin behar dituzu, esfortzuetan galdutako indarrak berritzeko. Hala ere, noizean behin kapritxoren bat ematen diot neure buruari.



Helmugara ailegatzen Ironman proban



Virginia lasterketa batean parte hartu baino lehen

Lasterketa askotan hartu duzu parte. Zein gogoratzen duzu bereziki?

Nizakoa berezia izan da, neure burua-
rekiko konfiantza berreskuratu dudalako. Urte batzuk igaro ditut munduko txapelke-
tetan parte hartu barik, baina proba horre-
tan egiaztatu dut, lana gogor egiten denean, gauzak lortu egiten direla. Gainera, nire lehenengo munduko podiu-
ma ere Nizan lortu nuen orain bost urte. Beste alde batetik, 1997koak ere atsegi-
nez gogoratzen ditut eta, batez ere, Gernikan lortutako brontzea. Luzaro gogo-
ratuko dut karrera hori, etxean nengoen eta jendeak sekulako indarra ematen zidan... eta, noski! Frankfurtoko abuztuko Ironman-a.

Ironman-a edozein triatloiariren ametsa da?

Bai, triatloiarren Meka da. Oso proba gogorra da: 4 km igerian, 180 bizikletaz eta 42 korrika. Jendeak amaitze hutsaga-
tik ematen dizkizu zorionak.

Zuk, gainera, Espainiako markarik onena lortu zenuen (9 h, 40 m, 18 sg).

Ba... bai!!

Momentu tristerik izan duzu?

Batzuk bai. Junior nintzela, 93an, Europako txapelketan brontzeko domina lortzekotan nengoen, baina, beroagatik, konortea galdu nuen, helmugara ailega-
tzeko kilometro bi falta zirenean.

“Nizan lortutako dominari esker neure buruarekiko konfiantza berreskuratu dut”

“Halako batean nire bizitzan ez zegoen besterik triatloia baino”

Gero, 98ko mundial absolutuan, aurre-
ko urtean baino indartsuago nengoen, baina erretiratu beharra izan nuen, ezin nuelako arnasarik hartu.

Triatloia uztea pentsatu duzu inoiz?

Bai. Urte horretan arazoak izaten hasi nintzen. Oso presionatuta nengoen. Halako batean nire bizitzan ez zegoen besterik triatloia baino. Neure buruari larregi eskatzen nion eta depresioak jota egon nintzen. 2000ko olinpiadan parte hartzeko plaza neukan, baina hain nekatu-
ta egonda ez nuen motibaziorik aurkitzen eta uko egin nion. Txarto pasatu nuen... Hala ere, triatloia neure hondamendia izan

bazen ere, nire sendabidea ere izan da. Poztasun handiak eman dizkit eta lagundu dit sartu nintzen zulotik irteten. Iaz, beraz, berriro hasi nintzen lehiaketetan parte hartzen. Orain benetan motibatzen nauden erronkak baino ez ditut onartzen. Hala egin behar da, entrenatzeko gogoia ilusioa ez galtzeko.

Emakumea izateagatik baztertuta sentitu zara?

Ez, beste kirol batzuetan zer gertatzen den ikusita ezin naiz kexatu. Komunikabideak oso ondo portatu dira nirekin. Garrantzia bera ematen zaigu emakumezkoen zein gizonezkoen. Izan liteke atleten artean inoiz halako komentarioak

“Komunikabideak oso ondo portatu dira nirekin”

entzutea, baina gero eta gutxiagotan. Adibidez, Ironman-i dagokionez, gizonak eta emakumeok distantzia berdinak egiten ditugu. Batzuk aho zabalik geratzen dira horrekin.

Konpetentzia handia dago?

Gero eta handiagoa. Azken bolada honetan maila handitu egin da. Amerikarrak eta australiarrak gogor datoz.

Zelakoa da zure bizitzako egun normal bat?

Uf!... oso konplikatu. Egun osoa ematen dut entrenatzen. Dena dela, saiatzen naiz entrenamenduak ondo antolatzen, denbora libre izateko.

Zeintzuk dira zure etorkizuneko planak?

Urriko bigarren asteburuan Madeirara joango naiz, munduko txapelketako probetan parte hartzera. Urriaren 27an, berriz, Palermora joango naiz. Horiezaz gainera, azaroaren 10ean distantzia olinpikoko munduko txapelketa egingo da Cancunen eta bertara joan nahi nuke. Hala ere, munduko txapelketarik egin barik luzaro egon naizenez, ez daukat punturik, eta gonbidapena ematea behar dut. Ez badut lortzen, oporrak hartuko ditut.

“Nik unean uneko erabakiak hartzen ditut, eta ikusiko dugu noraino heltzen naizen...”

Gaztea izan arren, erretiratzea pentsatu duzu? Zer egin nahi zenuke?

Kirol honek zerikusi handia dauka aerobik eta erresistentziarekin. Jendeak urte asko irauten du. Nik unean uneko erabakiak hartzen ditut, eta ikusiko dugu noraino heltzen naizen... Erretiratzekotan, kirol munduan lan egin nahi nuke, baina ez dut neure burua gai ikusten beste atleta batzuk entrenatzeko. Beste alde batetik, umeak oso gustuko ditut eta, agian, haiekin lan egingo nuke.



Uretara sartzeko prest



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

**LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK**

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Telefonen Plaza, 1 - 1º A
48900 ULKIU

Telefonak: 944 545 705



**LARRABETZUKO
ESTANKOA**

Tabakoa, prentsa, loteriak, kiniela...

Andra Mari kalea, 1. LARRABETZU
Tfnoa: 944 558 110

GAIZKA PEÑAFIELEK 'LEZAMAKO ANDRA MARIAK' ABESTIA KALERATU DU

Hasiera batean, anaiak eta bere lagunek proposatutako proiektu xumea izatekoa zen. Hau da, ordenadorearen bidez, Lezamako jaietarako kanta bat konposatu eta txosnetan jartzea. Baina, proiektu horrek forma hartu zuen eta herri mailara zabaltzea erabaki zuten. Orduan, Gaizka buru-belarri hasi zen lanean. "Sorpresa handia izan zen", komentatzen du trikitilariak, "Nire lehendabiziko konposaketa izan da eta zaila egiten zitzaidan".

Izan ere, melodia on bat sortzea ez da lan erraza eta gazte hau beste kantuetan inspirazio bila aritu zen. "Mari Jaia abestiaren antzeko zerbait egin nahi genuen", dio, "erraz gogoratzeko moduko erritmoa, jendea animatzeko eta dantzatzeko". Honetaz gain, abestia euskara bultzatzeko modu bikaina izango zen.

Guztion lana

Horrela, gogor lan egin eta gero, Lezamako Andra Mariak kanta errealitate bihurtu zen. "Dena den, abestia ez da soilik nirea", azaltzen du, "Laguntzaile asko izan ditut: Edurtzeta Ania, Oihana Astobieta, Harkaitz eta Iker Allur... Haien ekarpenei esker abestia sortu da. Ondorioz, guztion lana izan da", argi uzten du.

Kantaren hiru bertsio ezberdinek osatzen dute CDa eta 200 kopia atera dira. Alde horretatik, aipatu beharra dago, ate batzuk jo ondoren erantzunik izan ez

zenez, Zorritzetan euskara elkarteak finantzatu egin dituela bai estudioan egingako grabaketa bai ateratako kopiak. "Agian, batzuek pentsatu dute nire asmoa ospetsu bihurtzea izan dela. Baina, nik herri osoaren probetxuan lan egin nahi izan dut", ziurtatzen du Lezamakoak. Eta, egia esan, herritarrek ilusioz hartu dute proiektua. "Oso kritika onak izan ditugu" dio Gaizkak. Hala ere, trikitilariaren esanetan, txosnetan entzun zen baino gehiago entzun beharko zen abestia, edozein jaietarako abestik sarriago jartzea merezi du eta.

*"Herri osoaren
probetxuan lan egin
nahi izan dut"*

Trikitixa bizimodutzat

Orain dela 5 urte, Gaizkak adierazpiderik egokiena trikitixan aurkitu zuen. 17 urteko gazte musikazaleak instrumentu honek guztiz betetzen duela baieztatzen du. "Trikitixa edozein musika-estiloa, tradizionala, modernoa..., jorrazteko egokia da. Gainera, bere sonoritatea eta armonia oso gustuko ditut" azaltzen du, "Nik bizimodutzat daukat. Ez dut gehiagorik behar". Izan ere, Zamudioko Bertoko elkartearen trikitixa ikasteaz gain, Mungiako Larramendi ikastolan eta Maurizia Musika Eskolan instrumentu hau irakasten die umetxoei.



Gaizkak trikitixa baino ez du behar

Nahiz eta noraino heldu bere buruari ez planteatu, Gaizkak proiektu batzuk ditu esku artean: konposaketa berriak egin, agian musika talde bat sortu... eta Euskal Herriko Trikitixa Txapelketa. "Datorren urtean izango da eta ikusiko dugu zer egiten dugun. Nik neuk konposatutako abesti batekin joan nahi nuke, nire ustez, gehiago balio baitu", amaitzen du.

Testua: Itxaso Marina



itv ARRIGORRIAGA
Bilbo - Zaragoza autobidea
A-68 Km. 6,5
Kontsultetarako Tel.:
94 671 17 73



itv ZAMUDIO
Ugaldeguren I Industrialdea
8. Partzela
kontsultetarako Tel.:
94 452 20 20

IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKO OFIZIALA

ALDEZ AURREKO TELEFONOA 94 452 11 13

VASCOLAC, S.L.
48170 Zamudio (BIZKAIA)
Tel.: 94 452 23 00





Birkaren batutako esneagor egunero eguneko GAILLA gorta freskoa
ATUTXA San Jakobo eta kroketak
BANAKETA DENDETARA, JATETXEETARA,
TABERNETARA ETA JANTOKIETARA
Hainbat euskal produktuen distribuzioa;
edozein esnekiak, barrikak, mentrikoak, bekilaua, patesak.

Derio 1865. urteko ezkontza berpiztu gurean

Urriaren 22an, Derioko San Migel auzoko jaietako egitarauan, Euskal Ezkontza antzeztu zan. Oraingo honetan hirugarren biderrez egiten zan. Antzezpenean Derioko talde kulturaletako lagunak parte hartzen dabe. Ezer aipagarria bada, bertan erabiltzen diren jantziak dira, herriko emakume talde batek eginak. Orrialde honetara ezkontzako pertsonaien erreportaje grafikoa dakargu, joan den mendeko ezkontza berpiztuaren datu batzukaz batera.



Ezkongaiak:

Sabina Lekue
Izagirre,
Larrabetzuko
Goikoelexea
auzokoa.

Ezekiel
Aurrekoetxea
Olabarrieta,
Derioko Larrabarri
baserrikoa.



Andregaiaren aita-amak:
Cirilo Lekue Loroño eta
Eustakia Izagirre Gezuraga



Senargaiaren aita-amak: Casimiro
Aurrekoetxea Landa eta Antonia
Olabarrieta Bulunburu



Senargaiaren
aitite-amomak



Andregaiaren aiti-
te-amomak



Osaba-izekoak



Herriko indianoa, bere
familiagaz



Bilbon bizi dan baserriko
jabea eta andrea



Medikua eta andrea



Alberto Aurre,
Gernikako notarioa



Argazkilaria



Eskopeteroak



Joskileak

2002-KO SAN MARTINAK PREST

Txarribodak, erromeriak, umeen jokuak, ardi txakurrak.. Ondo pasatzeko aukera ugari.

Badaukaguz San Martinak gainean. Maiatzeko Pazko jaiek udako Txorierri guztiko jaiei txupina emoten baeutsien, San Martinak jaien sasoiaren bukaera adierazoten deuskue. Gozatu, beraz, datorren urterarte ez dago gehiago eta.

San Martin inguruko ospakizunak hasi dira. Egitarauan agertzen ez diran arrer. Lagatzuk orain dala lau urterik hona urtero San Martin bueltan egiten dauan txarribodea –kanta afaria- urriaren 25erako antolatatu dau. Azoka be ez da agertzen, baina azaroko lehenengo domekan lekua hartu dauan egun honek, San Martinak badatozela iragarten deuskue.

Jaiak semendiaren 8an, barikuz, hasi eta 11rarte izango dira. Egun honeetan herri guztiko taberna eta jatetxeetan egiten diran txarribodatan, hain ospe handia



Jai giroa emoten dabe txistulariek

daukien odoloste gure dana jateko aukera izango dabe zamudioztarrek eta bertora datozen bisitari guztiek. Honetaz gain, ekitaldi ugari, erromeriak ... prestatu dabez, parranda egin eta jai giroaz gozatzeko. Hasikeran, jaien antolakuntzan hainbat gora-behera izan diran arren, pozik azaldu dira antolatzaileak lortutako emaitzagaz.

Egitarauak nobedade askorik ez bada-
kar be, antolatzaileek umeen egunerako
herri kirolak antolatzen aditua dan Kulki
taldeak egingo dituen Arrantzaleen jokuak
eta domekan lehenengo aldiz egongo dan
ardi txakurren erakustaldia azpimarratu
gura izan dabez. ONDO PASA!

Primeran pasatzen dabe umeeak ialetan

ZAMUDIOKO 2002-KO SAN MARTINAK EGITARAUA

Azaroak 8, BARIKUA

19.30 Jaiien hasiera, txupinazioa eta jarraian
karameluen jaurtiketa
19.35 Kalejira, Zamudioko GAZTE ELAI txis-
tu taldearen eta BERTOKO soinu tresnen
elkartearen doinueta.
23.00 Berbena, URGABE taldearen eskutik.
03.00 Musika plazan.

Azaroak 9, ZAPATUA

11.00 Kalejira, BERTOKO soinu tresnen
elkartearen doinuetara

11.00 UMEEN EGUNA

Umeentzako jokoak.

KULKI taldearekin jokoak.

16.00 Karta txapelketa, zahar etxean.

18.00 Zamudioko HIRU BAT dantza taldearen ekitaldia, plazan.

20.30 Abesbatzak elizan.

- Amatzta abesbatza. Sestao. 35 ahots zuri
- Akordeoia. Jabi Urrutikoetxea
- Banda Gazte. Jesús Aranbarri musika eskola (Bilbo)
- Zamudioko Kamara Korala eta Banda Gazte.

23.00 Rock kontzertua.

24.00 Gau dantza, SORBELTZ taldeagaz.

04.00 D. Jockeya, plazan.

Azaroak 10, DOMEKA

11.00 Kalejira GAZTE ELAI txistu taldearen doinueta.

11.30 Meza nagusia.

12.30 I. artzain txakurren erakustaldia.

17.00 Poney-ak Gorritirekin.

19.30 GEISER orkestra, Zamudioko plazan.

Azaroak 11, ASTELEHENA

11.00 Kalejira, GAZTE ELAI txistu taldearen doinueta.

11.30 Meza naqusia.

12.30 TRIKITRIXA

17.00 Puzgarriak, jokoak Zamudioko plazan.

19.30 KIŅU orkestra, Zamudioko plazan.

GAMINIZ
RESTAURANTE



AITOR ELIZEGI

/amudikoa Parke teknologikoa Tel. 94 431 7025
Hazmatu 212 E-mail: gaminiz@euskalnet.net
48100 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizrestauranten.com

 **GUEDAN**
servicios deportivos, s.a.
ESPECIALIZADOS EN EL RENTADO DE
ESQUEIS DE NEVADA

Walter Vignoli y Cía. S. - Prolongación Avenida 11, Barrio 2, 11400 - 5022 140 8022
Fonofax 54 422 20 10 - Fax 54 422 37 12
Tambora/Teléfono Fax 54 422 21 32 - Caja 54 422 33 34

OSKARBI
fotografoak

HERNAN APEREZ Etxeak

TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 605 705 087
E-mail: aperex@euskalnet.net

**LEANDRO
LANDETA**



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oie Kalea, 1 • Tel. 94 457 00 64 • 48100 ZAMUDIO

SUINOR COMPUTER S.L.
Torrelaragoti. Industrialdea-8 blokea-3 nabes-ZAMUDIO (Bizkaia)



BARAKALDO INFORMATIKA
Miranda Elorides 3
48902 BARAKALDO-BIZKAIA
Tlfnoa/Faxa.: 94 4781643

LEIOA INFORMATIKA
Iparagirie Elorides 56
48940 LEIOA-BIZKAIA
Tlfnoa.: 94 4804638
Faxa.: 94 4807145

e-mail: rocco@arrakis.es

ZAMUDIOKO XVIII. AZOKEA:

Aurten be, betiko kalitateari eutsi gurean

Azaroaren 3an, domekaz, ortuari eta ganadu azokea egingo da Zamudion, bertako Udalak, BBKren laguntzagaz, antolatuta. Aurtengoa XVIII. edizioa da, izan be, Zamudioko antzinako azokearen ohitura hau 1985ean berreskuratu zan, hainbat urtetan galduta egon ostean. Urte horretako azokea izan zan gure eskualde osoan eginiko lehenengoa, eta ordurik hona azaroko lehen domekan egin da beti.

Beharbada, horrexegaitik batuko da bertan hainbeste jente eta lortuko da hain kalitate ona postuetan eskaini eta saltzen diran produktuetan. Izan be, urtero hainbat arazo izaten dira, etorri gura izaten daben guztiei azokako 140 postuetan lekua emoten.

Bertaratzen diranak eskulanak, lorak, frutak eta barazkiak ikusi eta erosteko aukerea izango dabe goiz guztian, eta

baita txakolina, sagardaua, taloa, txoria, odolostea, ogia, pastelak, eztia eta gaztaia dastatzeko aukerea be.

Aipamen apartekoa merezi dau, urtero moduan egingo dan ganaduen erakusketak eta lehiaketak. Eguerdiko 12etan hasiko da eta ehundik gora buru izango dira bertan: txaroles, limusin, pirenaika, frisiar eta pardoalpina arrazetakoak, esne behiak, okelatakoak...



Zamudioko azokara ekarritako baserriko produktuak eta ganadua kalitate bikaineak dira

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazarri kalea, 1 (Iorja) Tel./Fax: 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

ASESORIA DIZA
SEGUROS BILBAO

- AHOLKULARITZA LABORAL
- AHOLKULARITZA FISKALA
- KONTABILITATEA
- ASEGUROAK
- Txorierriko etorbidea, 7 (ZAMUDIO)
- Tel.: 94 452 13 28

LIBURUEN DENDA PAPERENDEN DENDA
ZAMUDIO

Norbia kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO - Bizkaia

Magalarate Txakolina

Juvis 94 452 14 31
Irakur: 94 455 85 08

1996ko Zamudioko Aurtengoazko azokan

Udaltzaia de la Urtubi
Bizkaiko Txakolina

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 6 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Farmacia
Jose Maria Quijano

LEHENDAKARI LEIZOLA, 1 - TFNOA: 94 452 01 99
48170 ZAMUDIO - BIZKAIA

Ane Delaguerre

Estimulatu
muskulak
Elikadura
Rutaplegia indarrendue
Masajak
Gorputz tratamenduak
Hepatitis
Mikropigmentazio

Nekazarri kalea, 1
Tel.: 94 452 14 81

SENDA EL TEKUA
KINULTARIO ZABALEA
1919-19

Nacho & Aitziber
Biritunaga

Ponretiko, 6
48170 ZAMUDIO
Telefono: 94 403 72 61

BIRITXI
Akupuntura eta Tui Na

Ponretiko, 6
48170 ZAMUDIO
Tel.: 94 403 72 60
94 403 72 62

“SAN MARTIN EGUNA UDAZKENEKO MUGARRI EZAGUNA”...

... eta Zamudioko kaleetan odoloste, mortzile eta buzentzen usainak jaietako lehen irrintziak bialtzen deuskuez.

Arteagako San Martin auzunean jaia eta txarribodak ospatzen dira, baina Zamudiokoa izan zan Ajurikako San Martin ermitan ez dakigu egun honetan halako jairik egiten eben.

San Martinetan hasi eta ilberako egunetan txarrien “matantzia” nagusi dogu. Negurako jakiak lortzeaz gain, jai eta famili giroko egunak dira. Emakumeen lana izaten zan odola biltzea eta odolosteak, txorizoak egitea eta, gizonen lana, txarria hiltzea, erre, tripakiak atera eta zatiak egitea. Umeena handik hona, zarraparra ta astrapalaka ibiltzea.

Lan guzti honeen ostean, parte hartu dabenen artean txarriboda ospatzen zan, iluntzea izaten zan eta porrusaldeagaz hasten zan afaria.

Testua: Amagoia Gezura



San Martin eguna ailegatu jako txerri honi



Emakumeak txerriaren odola biltzen dau



“Matantzia” egin ostean pozik agertzen dira baserritarak

TXARRIBODAK

ERRRKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, famiñen bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEA

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

TE
HOTELA
JATETXEA
IRTEK-EROTK
Oñar Gaitasunak

Arteaga Auzoa, 81
48170 ZAMUDIO - BIZKAIA
Telefono: 94 452 21 97
Fax: 94 452 17 16
E-mail: hotel_arteaga@arteaga.com

Bar - Restaurante
Balgerri

Eguneko menua
Menu berezia
Enpresen bazkariak

Pelleketa 100m. arteaga, 119 - 48170 ZAMUDIO
Tel: 94 452 17 16 Fax: 94 452 17 16

LEKE'S **JATETXEA**
S.L.R.

LEKERIKO BILBAO

San Martin, 1
Telefono: 944 542 894

48170 ZAMUDIO
Bizkaia

ZAMUDIOKO JAIK GORA SAN MARTIN !!!

**CARROCERÍAS
TXORIERRI**



José Antonio Sarz

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Vial sur C-16, Nave RS-1
Tel-Fax: 94 452 28 03

48165 ZAMUDIO
(Bizkaia)



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelagotz Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

PATXI COOP. T.I.
Concesionario Zamudio



Tel-Fax: 94 452 25 87
670 87 17 34
Ugaldiguren Industrialdea 1
48170 ZAMUDIO - Bizkaia

OPTIKA KUSLAN

Belaurreko graduatuak - Kontaktu lenteak
Eguzkitako betaurrekoak - Lehenengo markak

Oiz Kalea, 3 Tel.-Fax 94 452 28 18 - 48170 Zamudio (Bizkaia)



FRUTAK ETA BARAZKIAK

ITZISA

Itzier Sagastizabal

Taller kalea, 5
Tel - 94 452 28 98

48160 - ZAMUDIO

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotz
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

Restaurante **SAN MARTINETAN TXARRIBODAK**
Restaurante JANA-JATETKEA
Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Torrelagotz Ind. P.7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Teléfono 91 152 35 26
Tel/Fax 94 452 06 64

He-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



**CARNICERIA
ALBERTO**

Txorierri Etorbidea, 5
Tel. 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik aurrera
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 26 75

ZER EGITEN DUTE GAZTEEK JAIETAN?



HARKAITZ BEITIA

Nondik ibiltzen zara jaietan?

Udan, jaiak dauden hainbat herritatik eta neguan Bilbotik, Mungiatik...

Herritik kanpo joateko nola egiten duzue? Asteburu bakoitzean lagun bati kotxea eramatea dagokio eta, noski, ez du edaten.



OIER GOIKOETXEA

Normalean, niri tokatzen zait kotxea eramatea.

Eta alkoholik edaten duzu? Bai, baina nahiko berandu bueltatzen garenez etxera, erreku-peratu egiten naiz.

Eta zein ordutan da hori? Goizeko zazpi eta erdiak aldera



ALAITZ ZABALA

Nola itzultzen zara etxera?

Segun, batzuetan kotxez, baina normalean goizeko lehenengo autobusa edo trena hartzen saiatzen naiz. Horrela, nahi baduzu, edan egiten duzu. Izan ere, kotxea hartzea ardura handia da.

Garraio publikoa sarriago jarri beharko litzateke gauez?

Bai, dagoena baino sarriago.



GORKA APALATEGI

Eta, zuk zer pentsatzen duzu?

Guk normalean kotxea hartzen dugu eta, egia esan, gidariak edan egiten du, baina gero pasatu egiten zaio.

Gauez, garraio publikorik izanez gero, erabiliko zenuke? Bai.



IXONE URRUTIKOETXEA

Zer egiten duzu jaietan?

Poteoa egiten dugu txosnetan eta tabernetan. Dantzatu...

Zer jarriko zenuke egunez gazteek egiteko jaietan?

Tailerrak, aerobic sesioak...

Baina, parranda egin eta gero? Bai. Gauzak dibertigarriak egiten badira, jendea animatuko delakoan nago.



ALAITZ BRUÑA

Udalek antolatzen dituzten ekitaldietan parte hartzen duzu? Ez.

Zergatik? Guretzako gauza gutxi dagoelako. Normalean, ekitaldiak pertsona nagusientzat egiten dira.



JON KEPA ROTAETXE

Zure lagun taldean ez dago neskari, baina inguruan ibiliko dira, ezta? Guk urrunetik ikusten ditugu, beti taberna bat atzerago gabilta eta.

Eta urrunetik... kainaberaz edo ligatzeko beste modurik baduzue? Oso gutxi ligatzen dugunez Laiñomendi dantza taldean izena eman dugu. Hemen aukera gehiago daude neskak oso jatorrak eta politik baitira.



ELLANDE ARETA

Eta zuek, asko ligatzen duzue? Beti dago azkarren bat asko ligatzen duena.

Zu zein mailatan zaude azkartasun horretan? "Punto muerto"n, beti arrankatzeko prest.

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoi-kastel ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrenamuko gerruzak sakurrak

hormigones de zamudio

Industria-eragileak S.L. - 48170 Zamudio (Bizkaia)
Tfnak.: 94 452 29 70 - Faxak: 94 452 31 65
e-mail: hormizamudio@jazzfree.com

COOPLAD

TRANSLATUAK - BANATZEKO TITENKADAK - SABAIA FALTSUAK
DUTU ARRIKETE PHISIKOTIKILAK - INERMIKIMUAK/LEKAK
MANPARRAK - ZORU TEKNIKAK (GORATUAK)

Teléfono: 94 452 12 11 - 94 452 12 15
E-MAIL: COOPLAD@EUSKALNET.COM

BASERRIA

Euskal Herriko nekazal ustiapenerako oinarritzko unitatea da baserria eta arrantzarekin batera ekonomiaren lehen sektorea osatzen duena.

Euskal Herrian zehar baserrien banaketa ezberdina da; Iparraldean, Bizkaian eta Gipuzkoan baserria da ustiapenaren oinarria, alegia, baserriaren inguruko lur eta soloetan oinarritzen da ekoizpena. Nafarroan eta Araban, ostera, bestelako sistemak erabiltzen dira lurra ustiatzeko. Aikor! irakurtzen dugunok betidanik eza-gutu eta ikusi ditugu baserriak geure inguruan; asko baserrietan jaio, bizi edota egunen batean, baserriak askorentzat duen bizimoduaren irudi bukoliko bezain faltsua gogoan, kapritxozko bizilekutzat hartu gura genuke. Bizilekutzat diogu argi baitago azken hiru hamarkadetan baserria ogibidetzat aukeratu dutenen kopuruak kezkatzeko moduko jaitsiera izan baitu.

Baserriak geure historian izan duen bilakaeraren zertzelada batzuk margotzea komeni da, izan ere, euskal baserriak hiru aldi edo sasoi sano ezberdin bizi izan baititu:

XIII. mendera arte, basogintzak eta abeltzaintzak nekazaritzak baino indar handiagoa zuten. Baso eta landak komunak ziren eta herritarrek inongo lur-jabe handikiren inposaketa barik erabil zitzaizkien. Gerora, erdi arotik hasita, baserritarra maizter izatera pasatu zen; baserrien buruan eliza edo monasterioak jarri ziren, gudetarako babes-leku bihurtu ziren eta ondorioz baserritarra nagusiaren babes truke, soloan ibili eta uztaren zati bat hari ematera kondenatua zegoen.

XVIaren inguruan nekazaritza sendotu egin zen. Mende honen erdialdetik aurrera artoa, artatxikia, garia, gatzainak eta



“Industrializazio-prozesua zela eta, baserritarrek industrialdera jo zuten dirua errazago lortze aldera”

sagarrik izan ziren oinarritzko produktuak eta abeltzaintza mendi aldeko baserrietako jardura izatera mugatu zen.

Hirugarren aldian, XIX. mende aldera, Bizkaian eta Gipuzkoan garia ereiten hasi ziren baserritarrak eta horrek aldaketa itzela suposatu zuen orduko bizimoduan. Ordura arte abere handientzako landetan garia ereiten hasi ziren eta oilo, untxi eta bestelako animalia txikiak hazten hasi ziren.

Azkenik, industrializazio-prozesua zela eta, baserria erabat aldatu zen eta baserritarrek industrialdera jo zuten dirua errazago lortze aldera.

Horrek kontraesan itzela sortu zuen, ez baitzegoen industrializazioak eragindako populazio hazkundearen beharrei erantzuteko adina produkzio, produkzio horren eragilea zen baserritarra bera industriako langile baitzen.

Egungo egoerak kezagarria izaten dirau. Badirudi askok uste dutela, egunero horren gozo jaten ditugun lehengaiak supermerkatuetan egiten dituztela eta behiak txokolate iragarkietarako kontratatzen dituztela, eta niri, Lizardiren poema hura datorkit agora “oi lur, oi lur, oi ene lur nerea...”

Testua: Gotzon barandiaran

**LEJARRENE
JATETXEA**

GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

KIMA

Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gaithezu 98 - TEL: 94 455 51 00 - FAX: 94 455 61 77
48106 LEZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGV

LEZAMA
Gaithezu Auzoa, 36
48106 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

Erosketak Interneten

Testua: Alberto Legarreta

Zelan egiten dira erosketak Interneten? Seguruak dira? Zelango gauzak euki behar dira kontuan? Aholku batzuk emongo jatzuez artikulu honetan.

Estatu Batuetan ohituta dagoz euren erosketak Internet bidez egiten, baina hemen gitxi erosten da oraindino eta eros- teko aukerea emoten daben weborriak be gitxi dira.

Erosketak egiten doguzune- an, txartela erabilten dogu asko- tan; era berean, Interneten be txartela erabiliko dogu. Halan be, gauza batzuk kontuan eukiten badira, Internet seguruagoa izango da.



SSL (Secure Socket Layer)

Enkriptazio mota bat da. Txartelaren datuak bialtzen diranean, algoritmo konpli- katu baten bidez aldatuten ditu datuok (zenbakiak), eta destinoak baino ez dau ulertzen. Inork konekzio hau entzun arren, ezin izango dau daturik atera, ez dau ikusiko informazio ulergaririk. Kodigoa ezin da deszifratu.

Helbide Interesgarriak

Testu batzuk:

<http://www.usergioarboleda.edu.co/grupointernet/compras.htm>

<http://www.newcenter.com.ar/seguridad.htm>

http://www.htmlweb.net/seguridad/sl/ssl_7.html

Edozein gauza topetako:

<http://www.google.com/>



Web denda baten sartu eta SSL erabilten danean, web-orriaren helbidea <https://> letrakaz hasten dala ikusten da eta behean, nabiga- tzailean, kandadu bat agertzen da. Ganera, ziurtagiri bat erabil- ten da, konekzioa ziurtatzeko.

Bankuak, dendak eta informazio garrantzitsua erabilten daben weborriak enkriptazio mota hori eukiten dabe, guz- tiz segurua dalako.

AHOLKUAK

Erosketak egiterakoan, gauza batzuk euki behar doguz kontuan. Gehienak normalean be hartu beharko geunkez kontuan:

-Ordaindu eizu beti txartelagaz (VISA, MasterCard...).

-Email bidez ez eizu bialdu zeure txar- telaren informazinorik.

-Egiatzatu eizuz zeure txartelaren mugimenduak.

-Web segurua izatea eta SSL enkripta- zinoa eukitea (<https://> eta kandadua).

-Leku fidagarrietan erostea.

-Badaezpada, leidu konpainiaren informazioa eta ziurtatu ona dala.

Erreza da erosketak egitea, baina kontuz egin behar dira. Halan be, Internet bidez egiten badira, abantaila asko euki leitekez (bidaia merkeagoak, beste toki batzuetako gauzak erosi ahal izatea, erosotasuna...).



ARTIZAR
MARKA JARTZEKO TALEKRA

Txesto Aguria, 3
Tfn. 94 453 01 50

48150 SONDIKA
Bizkaia

HACKERS
CIBER

-ON LINE JOKUAU
-CHAT-AN
-WEB ORRIALDEAK

Mikel Zabate, 3 (CORREOS AURREAN) SONDIKA
Tlfnoa: 94 453 75 78

VIDEO-CLUB EL TRASGU

DVD
VHS
PLAY STATION
JOKOAK
OPARI SALMENTAK

Iturrigano, 1 • Tel.: 944 710 156
48150 SONDIKA

LOIUKO ESKULANGINTZA

Loiuko azokan jenero nahia eta elegante aurkeztu zan ,eskulanak, ortuariak, baserriko ogia, euskal pastela eta bestelako gozo-jeneroak, baita talo, txorizo eta mortzilak bere ezin gozoagoak. Bestalde, arrakasta itzela izan zeuena txahal dastaketa izan zan, jendeak ordu batean jan zeuen aurreko gauetik goiko txosnan erre ondoren, Loiuko udalak dohainik eman zeuen txahala. Gainera, txakolina zenbat-gura edateko aukera egon zan, 3 eurotan kopa bat erosi ondoren. Jendeak nota bikaina emon zeuen.



Jendetza bildu zan azokan

Urriaren 20an ospatu zan Loiuko X. Azoka, eta aurten bere jendetza erakarri dau, eguraldia lagun, iazko markak gaindiz.

Azoka honek, urtez urte, gero eta arrakasta handiagoa lortu dau. Orain bederatzi urte, abenduan ospatu zan lehen azoka frontoian kokatu zan. Orduan 25 postu jarri ziran eta ia danak eskulangintzakoak izan ziran eta bertara hurreratutako jendea, gehienbat, Loiukoa bertakoa izan zan.

Bigarren urtean, Loiuko udalak erabaki eban frontoian eskulangintza bakarrik ipintea eta gastronomia eta ortuariak herriko plazan kokatzea. Gainera, Txorierrin egiten diran beste azokak kontuan hartuta, urriko hirugarren domekan ospatzea erabaki eban. Ordutik hona horrelaxe egiten da.

Aurten frontoian 32 artisau batu dira era guztietako eskulanak aurkezteko. Kopuru hau gutxi gorabehera urtero mantentzen da, frontoian ez dagoelako gehiagorentzako lekurik.

Bestalde, gastronomia eta ortuariari buruz ezin daiteke gauza bera esan, arlo hau urtetik urtera handitzen doa eta. Azken urteotako gorakada nabarmena izan da, esate baterako, iaz Loiuko azokak gailurra jo ebanean, 38 postu egon ziran; aurten, berriz, hainbat gehiago, 51 hain zuzen be. Honek zera esan nahi dau: saltzaileak prest dagozela Loiura etortzeko eta gainera pozik datozela, euren jeneroa saltzeko aukera ezin hobea daukielako. Iazko markak oso altuak izan arren, aurten apurtu egin dira.

Loiuko udalak lan polita egin dau hainbeste jenderi erantzuteko. Parte hartzaileak pozik agertu ziran udalak eskeinitako leku, mahai eta behar ebezan beste gauza



Baserritarrek haien jeneroa saltzeko aukera aparta dauke azoka honetan

ETA GASTRONOMIA AZOKA

*“Udalak txakolina
eta okela
eskeini eutsion
herrira
hurbildu zan
jendetzari”*

guztiengatik. Azpimarratzekoa da aurten aparkaleku egokiak prestatzeko egin dan ahalegina. Denok dakigun legez, aparkalekuen arazoa, gure herrian, arazo latza izaten da holako egunetan.

Aurtengo azokaren balantzea oso positiboa izan da, udal arduradunek adierazi euskuen legez.

Beste ekitaldi aipagarri batzuk bere izan ziran egun horretan: Loiuko udalak txakolina eta okela dastaketa eskeini eutsien Loiura etorri ziren ehundaka eta ehundaka pertsoneri. Aurtengo nobedadea zera izan da: bezperan hasita, gau osoan ibili zirala Muskizko sukaldariak txal handi bat oso-osorik bertan erretan. Hamabi orduko lanak emoitza ezin hobe ekarri eban, okela gozo-gozoa dastatzeko aukera, eta udalak bere anagrama eta guzti egindako kopa bat hiru euroren truke erosi ondoren, txakolina nahi beste edateko parada.

Gainera, eguna alaitzeko han egozan trikitilariak, txistulariak, dultzaineroak eta jendearen ikusmina piztu eben Berangoko zanpantzarrek. Eta ahaztu barik umeentzako gaztelu puzgarriak...

Ikusiak ikusita, Loiuko azoka osasuntsu dagoela esan daiteke. Maila handia lortu dau eta orain, gitxienez, hor mantentzeko ahaleginak egin beharko dira.



Berangoko zanpantzarrek jendearen ikusmiña piztu eben



Muskizko sukaldariak txahala erretzen

Testua: Juan txu Bilbao eta Belen Gana
Argazkiak: Oihana Astobieta

MEXIKO



Chichén Itzá piramidea

Uda honetan, ilusio handiz prestatu nuen Mexikorako bidaia. Egipton nengoe-la, maien zibilizazioa ezagutzeko grina piztu zitzaidan, zibilizazio haiek nahiko antzekoak baitira. Lurra menperatzen zuten indarrek haiek hondatu arren, euren itzalek iraun egiten dute.

“Mendi-mazelek eta txabolismoak oso bestelako kolorea zuten”

Maia hitzak zerikusi handia dauka erre-alitatearen ilusioarekin. Denboraren zaindariak zirenez, beste mundu batzuetara bidaiatzeko gauza ziren. Horrela, astronomia ez ezik, idazketa, kalkulua eta denboraren neurketa ere landu zituzten. Eklipseak aurretik ezagutzen zituzten eta instrumenturik gabe 584 eguneko urtea kalkulatu zuten.

Lehenengo eta behin, Mexiko CD bisitatu genuen: Konstituzio plaza, katedrala... Mexiko koloniala, azken batean. Hiria ingu-

ratzen duten mendi-mazelek eta txabolismoak, berriz, oso bestelako kolorea zuten.

Hurrengo egunean, Teotihuacanera joan ginen. Bere mistizismo eta antzinata-sunagatik oso garrantzitsua da gune arkeologiko hori. Aztekek “Jainkoen Hiria” esaten diote. Bertan, Eguzkiaren eta Ilargiaren piramideak, Quetzalpapelot jau-

regia eta Quetzalcoalt tenplua ikusi genituen, besteak beste. Gurekin zetozen hiru xamanek erritualak egiten zituzten leku sakratuetan.

Handik Chiapasera abiatu ginen. Sumideroko arroilatik nabigatu genuen eta San Cristóbal de las Casas herrira ailegatu ginen. Herri horretan europar asko bizi dira.



Bendeinkapen zeremonia

2002-KO UDA

San Juan de Chamula herrian, elizan egindako sakrifizioen testigu izan nintzen. Kristauen eta kolonaurreko ohituren nahasketak harrituta utzi ninduen. Nongoa nintzen esan nienean, ondo onartu ninduten indiarrek. Aurreko egunetan, guztiz kontrakoa gertatu zitzaidan, Hernán Cortesek egindako konkista ondo gogoratzten dute eta.

Aquatzul bisitatu ondoren, Palenquera, maien kulturaren gune arkeologikorik inportanteenera, heldu ginen. "El Templo de las Inscripciones" deritzon piramidearen tenplu eta hilobitzak erabiltzen da. Hemen Patxal erregearen hondakinak aurkitu ziren.

Egun batzuk geroago, Chichén Itzára iritsi ginen eta "Cenote Sagrado" izeneko putzua ikusi genuen. Antzinean, leku horretan Chac euri-jainkoari emakume birjinak eskaintzen zitzaizkion. Jainkoei egindako sakrifizioen ondorioz, gauza normala da piramideak odoleztatuta egotea.

Beste alde batetik, Kukulkacánen omezez eraikitako piramidearen kasua oso bitxia da. Eskaileretan kokatuta dagoen argi eta itzal-jokoaren eraginez, bi sude piramidetik narras dabilatzala ematen du.

Hainbat leku interesgarri bisitatuta, Zamudiora bueltatu nintzen. Bizi izandako esperientziak gogoratu, hango bizimoduaz ohartu nintzen. Emakumeek lan egi-


"Jainkoei egindako sakrifizioen ondorioz, gauza normala da piramideak odoleztatuta egotea"

ten zuten bitartean, gizonak plazan edo tabernan zeuden, umeak euren energiarekin, arrazen eta kulturen nahasketa... Neure burua hobeto ezagutzen lagundu didaten pertsona oso interesgarriak eza-gutu ditut. Gainera, leku ederretan egon naiz. Berriro itzultzea merezi du!!

Testua eta argazkiak: Mariasun Abona



Eguzkiaren piramide



Akhenatun piramide edo Aztiaren etxea Uxmalen



Errementeri Kalea, 22
Tfn.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)



LEIRE BEGOÑA

ILEAPAINDEGIA

UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNCIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
Sien Martin martxo, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 00 88 - 55
Faxa: (94) 452 11 46



Sukaldaritza

ETXEKO SUKALDARITZA

TRIPAKAILUAK

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Tripakailu kilo bat
- Kinpula bi
- Tomatea
- Sei piper gorri siku
- Porru bat
- Perrexila
- Gatza

Prestatzeko modua

Egosi tripakailuak, porru bat, kinpula zati bat eta perrexil eskutadatu bat gatzagaz prezinozko kazuelan 30 minutuan. Ipini sarten baten kinpula txikituta, eta gorritzen danean, bota piperra —aurretik ur berotan beratuta—, tomate txorrostada bat eta ogi azal txatal batzuk. Honeri gehitu saldea edo ostantzean ura. Euki 10 minutuan egosten, eta hau guztia txinotik pasatu eta bota tripakailuak txikituta saltsa artera. Hau dana beste 10 bat minutuan egosten euki... Eta on egin!



Mari Tere Onaindia



BUZTANA SALTSAN

Osagaiak

- Bi kiloko buztana
- Bi kipula
- Bi azenario
- Bi piper berde
- Bi porru
- 1 l okela-salda
- Edalontzi erdi ozpina
- Edalontzi bat ardo gorri
- Gatza, Oliba olioia, Irina

Goamizioa egiteko

1 k. patata, 1 l esne, gurin apur bat, piperbeltza

Prestatzeko modua

Barazkiak txikitu eta gero, oliba oliotan berotuko ditugu su motelean, lapiko batean.

Beste alde batetik, buztanari gatz botako diogu eta irinaz pasatuko dugu. Gero, olio beroz salteatuko dugu zartagin batean. Salteatu ondoren, barazkiak ditugun lapikora botako dugu eta ozpina eta ardoa gehituko ditugu. Gutxitzen utziko diogu eta okela-salda botako dugu. Su geldi doan egiten utziko diogu.

Okela eta hezurra banatzen direnean, kenduko dugu buztana, saltsa iragaziko dugu eta, beharrezkoa bada, gatz gehiago botako dugu.

Goamizioa

Patata-purea eta kalabazina erabiliko ditugu goamiziotzat. Pura egiteko esnea

berotuko dugu gurin, gatz eta piperbeltzarekin. Patatak egosi eta gero xukatuko ditugu eta esnea gehituko diegu nahi dugun lodiera lortu arte.

Azkenean, kalabazina dadotan moztuko dugu eta oliba olioaz salteatuko dugu zartagin batean.





**CAFETERIA
iAZi**

Eguneko menua eta
Menu berezia

JATA KALEA. 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)



• Eguneko Menuak
• Kazolabonak
• Olibakoa Erreta
• Karta Zabala

Umbu Kalea, 1 Bajo - DERIO
Tfno. 944 510 106

DERIO FRUTADENDA



Sollubea, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Lauterdi pirataren altxorra"

Antton Dueso/Aitzpea Goenaga

Atxu eta Manu lehengusina-lehengusuak baserrira doaz oporretan, eta, aititaren lagun bategaz ibilaldiak eginez, Lauterdi pirataren kontuak ezagutuko dabez bertan. Atxuk pasadizo eta istorio guztiak koaderno baten idatziko dauz.

"Xake mate"

Alberto Ladron Arana

Nobela laburreko Agustin Zubikarai I. Saria irabazi dau lan honek.

II. mundu gerraren ostean, Alemaniako mutil bakarti batek gerrako miseriak azalduko deuskuz. Xakea da bere denbora-pasa eta mundua ulertzeko era.

DISKOAK

"Hain zuzen"

Tapia eta Leturia.

Nafarroako Azkarate herrian grabatutako diskoa da.

Album hau hamabi abestiz osatuta dago eta hareetako lau abesti barriak dira.

Ruper Ordorikak produzitu dau eta Eduardo Casal eta Cathy Plana kataluniarren laguntza izan dabe pieza instrumentaletan.

"Argi izpi bat"


Igor Arzuaga

Laudioko gazte honek musika munduan murgildurik ibilia da txikitatik. Bere burua musika-sortzailetzat jotzen dau.

Ezkixu, Mara eta Mikel Urdangarinegaz be kolaboratu dau.

Abesti suabeak eta poetikoak bere letrak irakurtzen gonbidatzen dabenak

SOLUZIOA



DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Nongo udaletxea da hau? Zein da benetako udaletxea, goikoa ala behekoa? Aurkitu dituzu 6 ezberdintasunak?



UMOREA

SORIAKO PLATANOA

Joan da gizon bat medikuarenera, eta...

— Begira, doktore jauna, gorputzean mantxa batzuk atera zaizkit, eta ez dakit zer izan daitekeen.

Medikuak aztertzen du gizona, eta esaten dio:

— Hau soriasis izango da.

— Soriasis? Ni sekulan ez naiz Sorian izan eta.

— Ezta ni Kanariasen, eta sekulako platanoa daukat!

ESAERA ZAHARRA

EUSKARA BIHOTZEAN, BAINA ERDARA EZPAINETAN

Ongi asko dakizu gure hizkuntza euskara dela. Horregatik sortu ziren eta iraungo dute aurrera ere ikastolek. Baina zer gertatzen da askotan? Erdara azaltzen dela nagusi, ikastola, eskola, kale eta familietan. Zergatik?

Euskara Bihotzean, Baina Erdara Ezpainen

AGENDA

IRTEERAK

SONDIKA. Irteera, Panticosako eski tokira. Abenduaren 26tik 29ra bitartean. Apuntatzeko epea: azaroaren 11tik 25era, liburutegian. 944533982.

LEZAMA. Mendi irteera, Iratira. Azaroaren 1etik 3ra bitartean. Gailur mendi taldeak antolatuta.

LEZAMA. Mendi irteera, Costalerara (Araba). Azaroaren 17an, goizeko 8:30etan. Gailur mendi taldeak antolatuta.

ANTZERKIA

SONDIKA. "Bakartzaren zapatilak" (3tik 12 urte bitarteko umeentzako antzerkia). Azaroaren 29an, 17:30etan, Liburutegian. Irrintzi Produkzioak taldearen eskutik.

LEZAMA. Mari Sorgin txotxongilo antzerkia. Azaroaren 17an, 17:00etan. Frontoian. Sarrera dohainik. Taupadaren eskutik. Informazioa Lezamako Udal Liburutegian.

LEZAMA. Ipuin kontalaria (nagusientzat, erdaraz). Azaroaren 29an, 19:30etan. Sarrera dohainik. Informazioa Lezamako Udal Liburutegian.

JAIK

SONDIKA. San Martin erromeria. 12:30etan, meza ermitan. Meza ostean, aureskuia, dantzariak eta kalejira.

ZAMUDIO. San Martin Jaik. Azaroaren 8tik 11ra bitartean.

MUSIKA

LEZAMA. Musika kontzertua: Ekidazu abesbatza eta Bertoko Soinu Tresnen Elkartea. Azaroaren 22an, 20:00etan. Kultur aretoan.. Zorritzketan taldeak eta Udalak antolatuta.

AZOKAK

SONDIKA. Eskulangintza, nekazaritza eta abeltzaintza azoka. Azaroaren 10ean (10:00-14:00) Ikurriñaren enparantzan eta inguruko tokietan. 11:00etan, herri kirolak eta txakolinaren eta Idiazabalgo gaztaren dastaketa (dohainik); 12:00etan, Goraintzaileak dantza taldea; 12:00-14:00, umeentzako poneyak; 13:00etan behi ganaduaren heziketa. Goiz osoan, animazioa, txistulariak eta dulzaineroak izango dira

LOIU. Ganadu azoka. Bigarren eta hiru-garren igandean Ferialean.

ZAMUDIO. Ganadu eta ortuari azoka. Azaroaren 3an, goizez.

LEHIAKETAK

SONDIKA. Gabonetako postalen lehiaketa. Oinarriak, azaroaren 11tik aurrera udaletxean edo liburutegian. Azkeneko eguna abenduaren 9an.

LEZAMA. Gabon-txartelen IV. lehiaketa. Azken eguna: azaroaren 28a. Informazioa Lezamako Udal Liburutegian.

TXORIERRI. "Olentzerori Ipuina" V. ipuin lehiaketa. Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira 2002ko azaroaren 29a baino lehen. Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Informazioa: 944540152

BESTELAKOAK

SONDIKA. Argazkigintza ikastaroa. Azaroaren 25ean. Informazio gehiago udaletxean.

LEZAMA. Erreka eguna. Azaroaren 10ean. Irteera Udaletxeko plazatik, erreka garbitu eta hamaiketako egiteko.



ZAMUDIOKO JAIK GORA SAN MARTIN !!!

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Garfeia, 7 Bidea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 146 - Fax: 94 452 146
E-mail: jv.gamundio@zazpi.es
C.I.F. B45022804



AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

Juan Carlos Zárate Arguinchona
ASEGURUAK

Tzurierriko etorbidea, 6 Iunja
Tel.: 94 452 01 76 - 607 283 457

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

BITXITIGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

**Peluqueria
Una Belen**
estetika - solariuma

Perrontxoa, 4 - Iunja
tel.: 94 452 08 60
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Bocateria



Gatalekoa

Pizzeria

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO

TELF.: 9 44 52 11 42

Super BM

**JOSERRA
NURIA
IÑAKI**

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tel.: 94 452 10 46

Tu Super en Bizkaia

BAR TXIKI

Lehendakari Leizaola, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Tel. 94 452 04 68



Luisa
ALTZARIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Kolpeak edo urratu txikiak dijarazten etxetresna elektrikoak berriak, zuk espezializatu dituzanak.

Lehen mailako makiak, fabrikatzaileen berrie osoz erekin.

- PREZIO OSO INTERESGARRIAK -

TXORIERRIKO ETORBIDEA, 7 - TEL./ FAX 94 452 09 03 - 48170 ZAMUDIO (BIZKAI)

**CAFETERIA
CENTURION**

Espezialitateak:
gozari eta pintxoak

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
Telefonoa 94 452 10 49 - Zamudio

BBK txartelak



**BBK txartelek opariak
gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

bbk banka